

# ...Eguzki Xuri Udako Solstizio kontzertua izango da igande arratsaldean Sastarraingo harrobian

Arratsaldeko 19:00etan hasiko da. Sarrerak aurrez erosi beharko dira bibe.me atarian edo turismo bulegoan

---

**Sara Utrera**

Zestoa.

Miércoles, 14 de junio 2023, 22:07 | Actualizado 22:37h.

Eguzki Xuri Udako Solstizio kontzertua izango da igandean, 19:00etan Sastarraingo harrobian. Sarrerak aurrez erosi beharko dira bibe.me atarian edo turismo bulegoan, 10 euroan.

World Weather Network larrialdi klimatikoari ahotsa jartzen dion arte agentzia independenteen sareak antolatu du kontzertua, Artingeniumen bidez eta Zestoako Udalarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta EITBrekin lankidetzan.

Eguzki Xuri Udako Solstizio Kontzertua Juantxo Zeberio Etxetxipia musikariak espresuki egun horretarako sorturiko bidaia musikala da. Bertan izango dira: Maddi Oihenart, Miren Narbaiza (Mice) eta Olaia Intziarte abeslariak; 'Hari laukotea & harpa' musikari laukotea; Tolosako Laskabesbatza eta Tolosaldeako Ahots Gazteak (TAG) eta Harrobia Dantza Bertikala konpainia.

Kontzertua 19:00etan hasiko da, baina Laiturriko zubitik sartu ahal izango da 17:30etik aurrera. «Harrobia ingurune babestu batean dago eta ezin da kotxez iritsi bertaraino. Gunea

zeharkatzen duen bidea oinez egingo dugu, 30 minutu inguruko paseo lasai eta zoragarria da», azaldu dute antolatzaileek. Gainera, garraio zerbitzua egongo da «behar bezala justifikatutako salbuespenetarako». Garraioa erabili behar izanez gero alde zurratik aurretik abixatu beharko da [ce@artingenium.com](mailto:ce@artingenium.com) helbidera idatziz. Halaber, oinetako erosoak eramatea gomendatzen dute. «Gogoratu mendian gaudela. Errespetatu ingurunea eta jaitsi zuekin igotzen duzuen guztia eta sortzen duzuen zaborra. Naturak eskertuko dizue», eskatzen dute.